

2/2002 IRIZPENA

Izatezko bikoteei aplikatzeko erregimen juridikoa arautzen duen Lege Proiektuaren gainean

Bilbon, 2002ko apirilaren 12an

I.- AURREKARIAK

Otsailaren 20an Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordera Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren idatzia sartu zen, non izatezko bikoteei aplikatzeko erregimen juridikoa arautzen duen Lege Proiektuaren gaineko txostena eskatzen baitzitzaion, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen gaineko ekainaren 27ko 9/1997 Legearen 3.1a) artikuluan ezarritakoaren arabera.

Lege hau pertsona askok, beren nortasunaren garapenera egokitzen den familia ereduaren eratzeko duen askatasunaz baliatu arren, lege aldetik jasaten duten bereizkeriari amaiera jartzeko xedea dauka, aukera afektibo eta sexual guztienganako eta aniztasun, berdintasun eta askatasun oinarrienganako errespetuzko marko baten barruan.

Idatzia jaso eta berehala Zirriborroa Batzordearen Osoko Bilkurako kide guztiei igorri zitzaion, beren proposamen eta iritziak bidali zitzaion, eta proposamen eta iritziok zegoen Lan Batzordera helarazteko, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Funtzionamenduko Arautegian ezartzen den bezala. Era berean, joan den martxoaren 8an, Javier Madrazo Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Sailburu jaun Txiti Gorena, EGBko Batzorde Iraunkorraren aurrera agertu zen, batzordeko kideei legegintzazko ekimen hau aurkezteko.

Martxoaren 20an, Gizarte Garapenerako Batzordeak lan bilera izan zuen, Irizpen Aurreproiektuko lehenengo zirriborroa eztabaidatzeko, non Batzordeko Osoko Bilkurako kideek egindako oharra sartuak baitzeuden. Eztabaidatzen hasi aurretik, Batzorde honek EAEko gay eta lesbianen kolektiboaren ordezkari batekin mintzatu zen, Irizpena emateko orduan irizpide gehiago kontuan eduki ahal izateko. Bilera horretan hartutako erabakietatik eta adierazitako oharretatik abiatuta, Irizpen Aurreproiektuaren bigarren zirriborroa prestatu zen, Batzordeak martxoaren 27an eztabaidatzeko. Batzorde horretan erabakitakoan oinarrituta, Euskadiko EGBk gaurko eguneko datuz ondoko Irizpen hau onetsi du.

II.- EDUKIA

Izatezko bikoteei aplikatzeko erregimen juridikoa arautzen duen Legearen Proiektuaren testua honelaxe osatzen da: Motiboen azalpena, hogeitun artikulua hartzen dituzten lau kapitulu, Xedapen Gehigarri bat, Aldi Baterako bi Xedapen, Baliogabetzeko Xedapen bat eta Amaierako bi Xedapen.

Motiboen azalpena:

Atal honetan agerrarazten da nola, indarreko legediak ohikoaz bestelako familia ereduak hautatzen dituzten pertsonen eskubideak mugatzen ez dituen arren, praktikan pertsona horiek beren eskubideak gauzatzeko oztopoak izaten dituzten. Izan ere, egonkorra diren harreman afektibo eta sexuarekiko unitateak benetako familiak izaten dira, eta egun ez daude

inongo harreman juridikoren menpe, eta ez doaz eskubideen babesgabeziak auziak epaitegitara eramatea eragiten duten kasuetan epaileek eta epaimahaiek formulatzen duten interpretaziotik harantzago.

Beraz, eskubide positiboan ohikoaz bestelako familia ereduaren eraketa libreaki bereizkeriarik ez egiteko printzipioa esplizituki aipatu behar dela ikusten da, EAEko antolamendu juridikoaren interpretazioan eta aplikazioan inork ez dezan parte deneko familia multzoarengatik bereizkeriarik jasan, familia mota horren jatorria filiazioan, ezkontzan, edo sexu bereko zein sexu desberdineko bi pertsonen arteko batasun afektibo eta sexuarean egoteari begiratu gabe.

Lege honek familiako kideek, familia gure gizarte ingurunean kulturalki onartutako afektibotasuna eta sexualitatea adierazteko modu ugarietan ulertuta, beren baldintza edo inguruabar pertsonal zein sozialengatik jasaten dituzten eta legedian irauten duten bereizkeria guztiak gainditzen lagundu eta bide horretan aurrera egin nahi du, baita bereizkeriarik ezaren, nortasunaren garapen libreaki eta familiaren babes sozial, ekonomiko eta juridikoaren oinarri konstituzionalen gaineko araudien garapena perfektionatu ere, araudiak une historikoko gizarteko errealitateara moldatuz.

Xedapenen Gorputza

Lehenengo kapituluak Legearen xedapen orokorrak aurkezten ditu, eta lehenak legearen xedea definitzen du: horri heldu nahi dioten eta ezkontuta ez dauden bikoteei aplikatzeko erregimen juridikoa, familia gizarte, ekonomia eta lege aldetik babestea ziurtatzeko herri botereen gainera datorren eginbeharra betetzeko. Horretarako, ohikoaz bestelako familia multzoenganako bereizkeria beren beregi debekatzen duen artikulua sartu da.

Kapitulu berean Legearen aplikazio esparrua ere definitzen da, hau da, bikotekide bat administrazioz EAEko herritarra deneko bikote guztiak hartzen ditu, beste bikotekidea estatukoa ala atzeritarra den bereiztu gabe, Legearen barruan sartzen den izateko bikotearen kontzeptua definitzen du eta, funtsezko oinarriari dagokienean, Legeak berak sortzen duen izateko Bikoteen Erregistroa arautzen du. Erregistro hau bereziki garrantzitsua da inskripzioa kontsultarako baita eta, hori, legeari heldu nahi ez dioten bikoteek, legegintzako ekimen honetan jasotakoa bezalako eskubide eta betebeharren erregimenari beren borondatearen aurka Legearen mende jarri behar izan dezaten saihesteko egin da.

Bigarren kapituluak Erregistroan inskribatzen diren bikoteei aplikatzeko eskubide eta betebeharren erregimena xedatzen du. Testuak bikoteko kideek libreki hautatzen dituzten itunei balioa emateko oinarriari jarraitzen dio eta, itunik ez dagoenean edo itunek baliorik ez dutenean, seme-alabarik izatekotan, seme-alabok eta, bikotea haustekotan zein bikotekide bat hiltzekotan, kiderik babesgabeena babesteko asmoko erregimena ezartzen du. Hartara, erregimen ekonomikoa gutxieneko baldintzetan arautzen da eta, adierazitako itunik ez dagoen kasuetarako, bikotearen ondasun erkideak zer diren definituz, eta aldioroko pentsioaren eta konpentsazio ekonomikoaren figurak arautuz. Halaber, beste ekintza batzuen gauzatzea ere hartzen da kontuan, hala nola, adingabeak hartu eta adoptatzea. Azkeneko kasu horretan, beren beregi adierazten da sexu bereko pertsonen osatutako bikoteek sexu desberdineko pertsonen eta ezkontuek osatzen dituzten bikoteen eskubide eta betebeharrak berdintzen dituztela.

Hirugarren kapituluak, bere aldetik, EAEko eskuduntzen barruan zuzenbide publikoaren esparruan bereizkeriak amaitzera begira dauden zenbait aurreikuspen ezartzen ditu, bikote ezkontuek eta ezkontu gabeak ondorengoen, zergen, funtzio publikoaren, osasun artapenaren eta hil osteko administrazioko izapideen gaitan maila berean jarriz, baita EAEko orain dituen zein gerora izan litezkeen lan eta gizarte segurantzaren alorreko eskuduntzen esparruan.

Laugarren kapituluak, eta azkenak, Lege honen arautzen duen bikote batasunaren amaiera du gai, amaiera eragiten duten zio desberdinak eta amaieraren ondoreak zehaztuz. Bion adostasunez zein bikotekide baten erabakiz amaitzen direnetan, prozedura laster eta erraza ezartzen da, segurtasun juridikoaren oinarria zainduz, ezin baita inskripzio berririk baimendu aurrekoa ezereztatu edo aurretiko ezkontzarik desegin gabe, eta horrek, gainerako erregistroekiko interkonexioarekin batera, fede on zein txarrez egin litezkeen bikoiztasunak saihestuko ditu.

Xedapen gehigarriak ezartzen du EAEn Lege hau indarrean jarri aurretik onetsitako lege eta arautegietako arauak berrikusiko direla, lege berri honetara egokitzeko.

Aldi baterako bi xedapenek, bere aldetik, Lege hau indarrean jarri aurretik eraturako izateko bikoteei aplikatzeko baldintzak adierazten dituzte eta, Arautegi Arautzailea onesten ez zaien bitartean, Izatezko Bikoteen Erregistroaren gaineko kontuak nola ebatziko diren argitzen dute.

Baliogabetzeko Xedapen bakarrak Lege honek ezarritakoaren aurkakoak diren xedapen guztiak baliorik gabe geratuko direla dio.

Bukatzeko, **amaierako bi xedapenek** diote Eusko Jaurlaritzak Lege honetan ezarritakoa garatzeko behar diren arauzko xedapenak emango dituela, eta Legea Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunean indarrean jarriko dela.

III.- OHARRAK

Ohar orokorrak

I – Balorazio orokorra

Ideologiaren ikuspegitik gizarte mailako oihartzun argi eta garbia daukan gai baten aurrean gaude; eta gizarte eta laneko, eta ekonomia eta ondarezko harremanen ikuspegitik, ondorio praktikoak ere garrantzitsuak dira. Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzorde honek oso ondo ikusten du izatezko bikoteei aplikatzeko erregimen juridikoa arautzen duen Lege Proiektu hau, zeren, lehenik eta behin, gure Erkidegoan homosexualtasunaren egitatearen normalizazioaren zantzua adierazten baitu, kolektibo hori delako orain arte gizarteko gainerako pertsonen aldean eskubide berdintasunik bermatzen dien antolamendu juridikorik ez izatearen ukitu nagusia.

Ildo horretatik, Lege Proiektu hau forma afektibo - sexualen aniztasunaren eta gure gizartean jada errealitate diren familia eredu berrien erabateko ezagumendura iristeko egin behar diren urrats ugarietako bat da. Normalizazioko prozesu honen barruan, adingabeen adopzioaren eta harreraren figurak bikote mota guztientzat sartzeari oso urrats garrantzitsua da. Lege Proiektu hau, ordea, ez da, elementu bakanen batean ezik, diseinu eta edukian berritzaile delako ezaugarritzen, funtsean beste Autonomia Erkidego batzuetan (Katalunia 1998, Aragoi 1999, Nafarroa 2000, Valentzia 2001, Balearrak 2001 eta Madril 2002) indarrean dauden legeek jada ebakitako ildoetatik baitoa.

Bestalde, eta gure gizartean jendeak erabili ohi dituen esapideak direla aitortu arren, Batzorde honek lege testu honen idazleari geneke maskulinoa erabiltzea saihesteko arreta handiagoa jar dezan gomendatzen dio, "ciudadano" edo "individuo" bezalako hitzen ordeztu ordez hitz erabilpen ez-sexitaren printzipioarekin bat datozen beste batzuek jarritz.

II – Planteatutako familia ereduak

Euskadiko EGBk beharrezko ikusten du testu honetan planteatzen den familia ereduaren gaineko gogoeta egitea, zeren ezaugarri nagusiak bikoteko kideak sexu berekoak izan daitezkeela eta elkarrekin bizi daitezela eskatzen ez dela baitira. Bigarren kontu honen gainean, gogora ekarri behar dugu orain arte argitaratu diren lege guztiek, salbuespenik gabe, inskripzioa egin ahal izateko baldintzat batzuetan bizikidetasuneko epe zehatz bat (urte bat edo bi) frogatu behar dela jartzen dute, edo bestela etorkizunerako borondate hori eskritura publikoan adieraz dadila. Aurkezten den lege proiektu honetan, ordea, izatezko bikoteen eragile ez ezik, baita eragile ere baden bizikidetasunaren datua aipatu ere ez da egin. Hartara, planteatutako familia ereduak zeharo berritzaileak da: aldeek sentimendua dagoela adierazte hutsak sentimenduari ondore

juridikoak ezagutzen dizkio, eta gizarte mailan garrantzia duen bizikidetasunaren egitate objektibo eta agerikoa aipatu ere ez da egiten.

Egokitasun hutseko gaia da, egia esan, ondo ala txarto balora daitekeena, baina edonola ere Legeak bikote bat (familia bat) dagoela ezagutzeak dituen ondorioak kontuan hartzetik abiatu behar duen gogoeta merezi duena. Eta ondorio horiek bi esparrutan mugitzen dira: pertsona-familia-afektuzko harremanen esparruan eta harreman juridiko-ekonomiko-ondarezkoen esparruan.

- Familiaren ikuspegitik:

Izatezko bikote horri (homosexual zein heterosexual) ezkonduzko bikoteek duten eskubide berdinak ezagutzen zaizkio adingabeak adoptatu edo hartzea lortzeko orduan (8 eta 9. artikulua). Uler daiteke bikote bateko kide diren pertsona helduen askatasun pertsonalaren errespetuak bizikidetasunaren salbuespena justifikatzen duela; baina gaur eguneko gure gizarte testuinguruan, nekez onar daiteke familiako bizikidetasuna egitate garrantzirik gabea denik, adopzio edo etxean hartze bat emateko kontuan eduki behar ez dena denik. (Hori guztia, ezkongai izanik, adingabe bat adoptatu edo etxean hartzea askoz ere zailagoa duten pertsonen honetaz egin lezaketen erabilpena alde batera utzita).

- Ikuspegi ondarezko-juridikotik:

Ugariak dira, halaber, planteatu daitezkeen galderek. Hartara, esaterako, eta arestian esandakoarekin zuzenean lotuta: 14. artikulua ezkonduzko bikoteen zerga tratamenduaren berdina iragartzen du, baina ahazten zaio, ziurrenik, ezkonduzkoen zerga tratamenduaren oinarriko funtsa bizikidetasunean dagoela, ez harreman afektiboa izatean (halakorik ez izatea ere baliteke-eta). Bereizkeria alegatu ahal izateko, bi elementu behar dira: bat, alderaketaren terminoak berdinak zein parekatzeko modukoak izan daitezen; bi, lotzen zaizkien ondoreak desberdinak izan daitezen. Hartara, justua dirudi ezkonduzkoek eta elkarrekin bizi diren bikoteek zerga tratamendu berbera izan dezaten, baina ez luke zentzurik izango elkarrekin bizi ez direnei erregimen berbera onartzerik (eta elkarrekin bizi direnekiko bereizkeria izango litzateke gainera).

III – Inskripzioaren forma

Bikotea Lege Proiektuak diseinatu duen sozietate zibilarren kontratua osatzen duten eskubide eta betebeharren edukien menpe geratzen da (aurkako itunik ezean), ez kontratua sinatzen dutelako erregistroan izena ematen dutelako egitate hutsarengatik baizik. Beraz, inskripzioari bikotearen balio eratzaila ematen zaio (3-1 artikulua). Hala izanik, zentzuzkoa dirudi, Legetik (eta ez arautegien bidezko garapenerako utzita), 42 artikuluan aipatzen diren bikotea eratzeko adierazpenak batera egin daitezen. Beharrezkoa da inskripzioaren ekintzan, gutxienez, bikoteko bi kideek lege horren menpe egoteko borondatea adierazten dutela agerraraztea.

IV – Prestutasunaren printzipioa

Lege Proiektuan arautzen diren eskubide eta betebeharren erregimen juridikoari dagokionez, Motiboen Azalpenean adierazitakoaren eta testuko zenbait artikuluren artean nolabaiteko kontraesana ikusi da. Motiboen Azalpenean (II. atala, hirugarren lehen zatia), esaten da erregimen hau, salbuespenik gabe, subsidiarioa dela alderdiek zegokien itunik ezarri ezean soilik. 5-1 artikulua, ordea, "legean agertutako gutxieneko eskubide" batzuek daudela aipatzen du, eta 5-5 artikuluan, gutxieneko pentsioa aurkako itunaren ahalbidea aipatu gabe arautzean, zehazten direla ematen. Bestalde, 7. artikuluan hirugarrenei begirako ondarezko erantzukizunaren erregimen zehatz bat ezartzen da, eta hor ere ematen du aurkako itunik egoteak lekurik ez daukala. Ondorioz, Euskadiko EGBk uste du argitu beharko litzatekeela zer den garrantzitsuena, askatasuna edo alderdien arteko itunak, ala badiren utziezinezko gutxieneko eskubideak, eta halakorik izatekotan, Legearen artikuluetan edo ataletan aipatu edo beren beregi enuntziatu beharko liratekeela.

V - Adingabeen adopzioa eta hartzea

8 eta 9. artikuluek sexu bereko edo desberdineko izatezko bikoteen eta ezkonduen artean adingabeen adopzio eta hartzeari dagokienean eskubideak eta betebeharrak berdinak direla ezartzen dute. Garbi dago gai honen inguruan gizartean eztabaida piztuko dela, baina Lege Proiektuak ezkondata ez dauden bikoteek jasaten dituzten bereizkeriak gainditzeko egiten duen ekarpen positiboa da.

Zenbait Autonomia Erkidegok, Foru Zuzenbideko eskuduntza hau gauzatuz, filiazioaren alderdi desberdinak arautu dituzte, adopzioa eta etxean hartzea barne. Baina planteatu daiteke ea gure Autonomia Erkidegoak eskuduntza horien berdinak dituen ala ez eta, beraz, kontuan izan behar da bikote batzuen itzaropena zapuz litekeela.

Iruzkun orokor hauek egin ondoren, Euskadiko EGBk beharrezko ikusten du izatezko bikoteei aplikatzeko erregimen juridikoa arautzeko Lege Proiektuaren gainean ondoko **Berariazko Oharrok** egitea:

1. artikulua: Legearen xedea eta bereizkeriarik ezaren oinarria. 2. atala.

Edukiarekin bat etorri arren, gure iritziz, artikulua nola idatzita dagoen ikusita, ematen du bereizkeriarik ezaren oinarria jasotako bigarren kasuan soilik aplikatzen da, beraz, idazketa osatu beharko litzatekeela uste dugu, gaizki ulertzerik sortzeko aukerak ezabatzeko, honelaxe, hain zuzen:

"EAEko antolamendu juridikoaren interpretazioan eta aplikazioan inork ez du parte deneko familia multzoarengatik bereizkeriarik jasango, familia mota horren jatorria filiazioan, ezkontzan, edo sexu bereko zein sexu desberdineko bi pertsonen arteko batasun afektibo eta sexualean, zein beste edozein kasutan egoteari begiratuko ez zaio-eta."

2. artikulua: Izatezko bikotearen kontzeptua eta aplikazioaren esparrua. 1. atala.

Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzorde honek Lege Proiektuak planteatzen duen familia ereduaren gainean egindako ohar orokorrak gogoan izanik, artikulua honen lehenengo atalaren idazketa aldarazi behar dela uste dugu, bizikidetasuneko borondatearen adierazpena beharrezkotzat jaso dadin erara.

Bestalde, egoki irizten diogu izatezko bikotea ezkonduen arteko harreman afektiboaren berdintsuak lotutako bi pertsonen osatutako batasuna dela esanez definitzeari, esapide hori Legearen Aurreproiektuaren zirriborroan erabilitakoa (harreman afektibo eta sexuala) baino egokiagoa dela iruditzen zaigulako. Esapide hori 1. artikuluko 2. atalean ere ordeztu beharko litzateke.

Ondorioz, 2-1 artikulua honelaxe idatzita geratuko litzateke:

"Lege honen aplikazioaren ondoretarako, izatezko bikotetzat hartzen da senide odolkideak ez diren, edo lerro zuzeneko adopzioz senideak ez diren, edo alboko bigarren mailako odolkidetasunik ez duten, eta ezkonduen arteko harreman afektiboaren berdintsuak lotzen dituen harremanak elkartzen dituelarik, sexu berdineko edo desberdinekoak diren eta bizikidetasunerako beren borondatea adierazten duten bi pertsona heldu, zein adingabe baina burujaberaren arteko batasun librearen ondoriozko bikoteari".

2. artikulua: Izatezko bikotearen kontzeptua eta aplikazioaren esparrua. 2. atala.

Lege Proiektuak dio "Lege honen xedapenak izatezko bikoteei aplikatuko zaizkie bikotekide bat gutxienez, administrazioz Euskal Autonomia Erkidegoko herritara denean, beste bikotekidea estatukoa ala atzerriarra den bereiztu gabe."

Batzorde honen ustez, asmoa izatezko bikoteei tratamendu bera ematea bada, beste bikotekidea "estatukoa ala atzerritarra" den berdin delarik, egokiago ematen du legearen testuan bereizketa hori ez sartzea. Edonola ere, ondoko idazketari egokiago irizten diogu:

"Lege honen xedapenak izatezko bikoteei aplikatzekoak izango dira, bikotekide bat gutxienez administrazioz Euskal Autonomia Erkidegoko herritarra denean, beste bikotekidearen nazionalitatea dena delarik ere."

3. artikulua: Eratzea eta egiaztatzea. 4. atala.

Egoki irizten diogu atal hau ondorengo modu honetara idazteari:

"Bikoteen erregistroetan izena eman ahal izateko, 2. artikuluan ezarritako baldintzez gain, ondokoak ere bete beharko dira: bikotekiderik ez-gaitzat jota ez izatea, eta bikotekiderik ez egotea beste pertsonaren batekin ezkondua edo 3. artikuluan aipatutako erregistroetakoren batean inskribatutako izatezko loturaz batuta."

4. artikulua: Izatezko Bikoteen Erregistroa. 2. atala.

Euskadiko EGBk uste du, izatezko bikotearen inskripziorako moduari buruz egindako ohar orokorrean argudiatu den bezala, legeak izatezko bikote baten inskripzio, aldarazpen edo amaiera oro bi alderdiek batera egin behar dutela exijitu behar duela, beraz, atal honen idazketa ondoren esango den bezala osatzea iradokitzen du:

"Erregistroaren xedea izatezko bikoteen eratze, aldarazte, edo amaitzeen adierazpenen baterako inskripzioa egitea da, baita batasunaren kideek, erregimen ekonomikoa eta ondarezkoa arautzeko, ezar litzaketan hitzarmen edo itunena ere."

13. artikulua: Ondorengo erregimena

Idazketatik ondorioztatzen da artikulua hau Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilarren menpeko pertsonari aplikatzen zaiela eta, horregatik, gure ustez Foru eskumenekoak ez diren Hiribildu eta Lurraldeetan erroldatutakoaren tratamendua aipatu beharko litzateke, Zuzenbide Zibil Arruntaren arabera arautzen direla argitzeko.

18. artikulua: Laneko eta Gizarte Segurantzako Erregimena

Izatezko bikoteek planteatzen dituzten eskakizun nagusietako bat ezkondukoekin, Gizarte Segurantzako eskubideei eta, zehazki, alarguntasun pentsioei dagozkien gaitan pareka ditzaten da.

Badirudi ulertarazi nahi dena Autonomia Erkidegoak Gizarte Segurantzaren alorrean eskualdatzeko geratzen diren eskuduntzak bere gain hartzen dituen unean ezkondukoekin parekatu eta bereizkeria oro desagerraraziko dela.

Horregatik, Euskadiko EGBk legegileari gomendatzen dio, lehenik eta behin, laneko eta gizarte segurantzako erregimeneko gaitako testua argitzeko ahalegina egin dezan, eta bigarren, artikulua honen edukia Xedapen Gehigarri batera lekualda dezan, hor esaten denak ez baitu inolako gairik arautzen, eta etorkizunerako dauden asmoen adierazpen hutsa besterik ez denez, igurikapen faltsuak sor litzakeelako, kontuan izanik Gizarte Segurantzaren alorreko oinarritzko legegintza Estatuaren eskuduntza eksklusiboa dela.

IV.- ONDORIOAK

Euskadiko EGBk egoki irizten dio izatezko bikoteei aplikatzeko erregimen juridikoa arautzen duen Legearen Proiektua izapidetzeari, kontsultarako erakunde honek egindako ohartarazpenekin.

Era berean, Batzorde honek Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Sailari legegintzako ekimen honek ofizialki aldarrikatzen den arte jarraitzen duen prozesuaren jakinaren gainean egon nahi duela adierazten dio, baita legearen ondorioz datozen araudien eta, bereziki, EAEko Izatezko Bikoteen Erregistroa arautuko duen arautegiaren garapenaren jakinaren gainean ere, bidezkoak badira, dagozkien ekarpenak egin ahal izateko.

Bilbon, 2002ko apirilaren 12an

O.I. Batzorde Burua
Rafael Puntonet del Río

Idazkari Nagusia
Manuel Aranburu Olaetxea